

# DENBORA, OROIMENA, HISTORIA

2017/2018 IKASTURTEKO

HASIERAKO IKASGAIA

HIZLARIA:

ISABEL OSTOLAZA ELIZONDO IRAK. DK.

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOKO  
GEOGRAFIA ETA HISTORIAKO KATEDRADUNA

DENBORA, OROIMENA, HISTORIA  
2017/2018 IKASTURTEKO  
HASIERAKO IKASGAIA  
HIZLARIA:  
ISABEL OSTOLAZA ELIZONDO IRAK. DK.  
NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOKO  
GEOGRAFIA ETA HISTORIAKO KATEDRADUNA



Iruñean, 2017ko irailaren 8an

*Argitaratzailea:* Nafarroako Unibertsitate Publikoa  
*Koordinazioa:* Komunikazio Zerbitzua  
*Fotokonposizioa:* Pretexto  
*Inprimatzailea:* Ulzama Gráficas  
*Lege gordailua:* NA 1495-2017  
*Banaketa:* Argitalpen Atala  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa  
Arrosadiko campusa  
31006 Iruñea  
Faxa: 948 169 300  
Posta: publicaciones@unavarra.es

Nafarroako Foru Erkidegoko lehendakari andrea,  
errektore txit ohoregarria,  
agintari agurgarriak,  
Unibertsitate komunitateko kideak,  
jaun-andreak:

Unibertsitateko tradizioari jarraituz eta ikasturtearen hasiera ekitaldiko protokoloa betez, zeinean joan den urtean unibertsitateak egindako ekarpenak azaltzen baitira, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren sorreraren 30. urteurrena ospatzen den ikasturte honetan, une egokia dirudi Historiari buruzko historia pixka bat egiteko. 2017-2018 ikasturteko *hasierako ikasgaia* aurkezteko errektoreak egin zidan gonbita eskertu nahi diot, ohorea baita ni kide nauen Geografia eta Historia Sailarentzat eta begiramena Giza Zientzietako arloentzat, egungo munduaren arazoak konpontzeko hain garrantzi gutxi dutela ematen baitu. Nolanahi ere, gogoeta batzuk egin nahi ditut, historiaren gaiarekin lotutako alderdien gainean, eta **Denborari, Oroimenari eta Historiaren idazketari** buruzkoak dira.

Genero historikoa, egun ulertzen dugun bezala, Grezia klasikoan sortu zen mediar gerren testuinguruan (K.a. 490-470). Gerra horietan elkarren aurka borrokatu ziren Heladeko hiriak eta Akemenestar Inperioko persiarrak, eta europar kontinenteko greziar hiriek beren burua defendatu behar izan zuten persiar inperioaren

erasoaren aurka. Inperio horrek Anatoliako kostaldeko joniar komunitateak konkistatu zituen 50 urte lehenago. Persian bertan landu den datu historikorik ez dago greziarren kontakizuna baieztatzeko, baina persiarren nagusitasuna benetakoa izan zen Iranen, Mesopotamian, Anatolian eta feniziar-palestinarren eremuan, hebrear Itun Zaharrean berresten den bezala. Itun Zahar horretan esaten denez, juduek Babiloniaren gatibutzatik askatu izana eskertu, eta adeitasunezko mendekotasun harremanak izan zituzten Akemenestar inperioko persiarrekin (Deuteronomioa, Esdras eta Nehemiasen liburuak). Joniar historialari batzuek (Herodoto eta Dinon) Greziarekin izandako konfrontazioa kontatzen dute, eta bereziki Dinonek bere *Persika* liburuan, non Artaxerxes I.aren eta Artaxerxes III.aren bitarteko erregealdiak kontatzen baititu. Mende bat geroago, Alexandro Handiak greziar mendekua maila gorenera eraman zuen, persiar inperioa garaituz K.a. 331tik 329ra bitartean, eta persiarren hiri nagusiak eta, ondorioz, beren agiritegiak suntsitu zituen.

Historiaren hasierak Grezian lotura handia dauka kultura eta nazio identitatearen sentimendu indartsu batekin, zeinaren bultzatzaileak hiri komunitateak (polis izenekoak) izan baitziren; antolaketa politiko konplexu eta parte-hartzailea zeukaten, eta horrekin beren jarduteko askatasuna defendatzea erabaki zuten, kontrapisurik gabeko botere absolutua egikaritzen zuten potentziek (persiarrek) beren mende jartzera exijitzen baitzieten. Erromatar historiaren jatorrian ere nazio identitatearen sentimendu indartsu bat dago, Kartagorekin borrokatu ondoren erdialdeko eta mendebaldeko Mediterraneoaren menderatzeko, gerra puniko izenekoetan. Erromatarrek Mediterraneoaren bi itsasertzetan izan zuten nagusitasuna, itsaso horri *Mare nostrum* esatera ere iritsi arte, ez zen izan, ordea, Mary Beard historialari eta Asturiasko printzesa saridunak dioten bezala, aurretik pentsatutako plan baten ondorioa, eta ezin zaio egotzi erromatar errepublikak, menderatu zituen herriek ez bezala, garatuago zeukan gerrazaletasunari<sup>1</sup>. Baina ondorio garrantzitsuak izan zituen europar kontinentearen esparru politiko eta juridikoan, tribuaren erreferentziatik erromatar herritartasunera igaro baitziren.

Erromatarrek hirien sorrera sustatu zuten, indigenek beren burua gizabanakotzat identifikatzeko modu bat zirelako, eta Errepublikaren garaian 12 hiri sortu zituzten Hispanian, ia guztiak Ebro ibaiaren ardatzean eta Galiarantz bideratzen ziren komunikabideetan kokatuak (horien artean Pompaelo). Orduetik aurrera jendeari ez zitzaion bere talde etnikoaren izenez deitzen (baskoiak, ilergeteak), baizik

---

1. Beard, M.: *SPQR. Una historia de la Antigua Roma*. Bartzelona: Crítica, 2016.

eta Ilerda, Pompaelo eta abarretako biztanle bihurtu ziren denak<sup>2</sup>. Zeltiberiar gerak amaitu ondoren, ilergete, bakzeo edo baskoi batek (betiere gizon askea bazen, herritartasun eskubidea lortu bazuen erromatar agintaritzaren gorenak emanda, hau da, kontsul batek proposatuta eta Erromako tribuno-biltzarrek alde aurretik onetsita), bere jatorrizko tribu edo *gensarekin* lotzen zuen izenaz gainera, erreferentzia puntu unibertsal bat zeukan, Erromarekin lotzen zuena eta bere komunitatean bizitzeko modua ematen ziona, erromatar herritar baten eskubide eta betebeharrarekin.

Mediterraneo inguruko herri guztiek ez zuten kontakizun historiko jarraitu bat izan. Hebrear historian nabarmentzen da nola egiten duten eginahala beren erlijio eta kultura nortasuna gordetzeko, eta hori aurkako testuinguru politiko batean, Agindutako Lurraldearen gaitzera eramanez. Agerikoa da, beraz, kontakizun historikoa ezin zela garatu kokatzeko lurralde bat eta gobernu moldeen eta gizarte antolaketako moldeen arrastoak utziko zituzten erakunde politiko egonkorrak ez zeuzkaten herrietan. Beraz, genero historikoa Europan eta bereziki Grezian jaio zen, filosofoen lurraldean, non logika erabiltzen baitzen fenomenoak ulertzeko metodo analitiko gisa. Historia idaztearena ez zen, bestalde, espontaneotasunaren eta inprobisazioaren ondorio izan, baizik eta handitasuna eman nahi zitzaizkien horrela Mediterraneoan zibilizazioen identitate politiko eta kulturala osatzen zuten balioei (zibilizazio terminoa *civitas*/hiria hitzetik dator). Heleniar zibilizazioaren balioak goratu nahi ziren (askatasuna maitatzea, hango hirietako batzuen antolaketa politiko, demokrazia hasiberri eta osatugabe bat bazela erakusten zuena), baina baita bere itzalak ere (hazien arteko lehia, borroka haien artean zeinek izango zuen boterea eta nagusigoa), eta, izan ere, itzal horiek ekarri zuten Heladeren gainbehera.

Erromatar historiografia errepublikaren azken urteetan hasi zen. Aldi horretako lanei *Annales* deitzen zaie, urteko gertakariak kontatzen dituztelako, Senatura igortzen ziren eta Estatuaren agiritegietan gordetzen ziren txostenek ziotenaren arabera. Beren egileei analista esaten zitzaizkien oro har, senatarien klaseko kideak ziren eta beren jardun politikoaren luzapena baizik ez ziren idazkiak haientzat. Beraz, urte liburu haietako informazio iturriak eta horietatik eratorritako kontakizun historikoak erabilgarriak direla dirudi politikan aritzeko, eta unean uneko auziak konpontzeko erreferentzia bilakatzen dira, edo erdipurdikoak izan ziren erabakien oroigarri gisa erabiltzen dira (nolabait esatearren egungo telebista hemerrotekaren antzeko zerbait dira, zeinean agerian jartzen baita kargu publikodun batzuen koherentziarik eza).

---

2. Pino Polo, F.: «Etnia, ciudad y provincia en la Hispania republicana», in *Roma generadora de identidades: la experiencia hispana*. Madril: Velázquez Etxea, Sevillako Unibertsitatea, 2011, 39-53. or.

Erromako genero historikoan eragin handia dute Greziako ereduak. K.a. II. mendean erdialdean Polibio greziar historialariarekin sortzen da historia konparatua. *Historiae* lanean erromatar sistema politikoa aztertzen du (*Erromatar konstituzioa*). Sistema perfektuena dela uste du, Aristotelesen *Politikan* jasotzen diren gobernu motak biltzen baititu (monarkia, aristokrazia, demokrazia); izan ere, erregimen politikoaren hazkunde fasearen sinbolo zirenak bere ustez, Grezian jada ezagutzen zuten endekatzearen aurrean (tirania, oligarkia, krisia).

Historia eta Geografia uztartzen ditu Pausaniasek (K.o. II. mendea), zeina Historiaren geografotzat hartua baita. Grezia kontinentalaren eta uharteen deskribapena egiten du, xehetasunez betea, erromatar konkistaren aurreko monumentu, eskultura eta bazterretan oinarritzen den ikuspegi entziklopediko batekin, eta gaitasun diskurtsibo autonomo bat ematen die, greziar zibilizazioaren handitasunaren erakusgarri. Estrabon, jatorriz greziarra, izango da egile ezagunena eta etengabe aipatua, zeren bere *Geografia* idazlanean Europa, Asia eta Afrika deskribatzen baititu, partez bere bidaietan berak berez ezagutu zituelako, baina baita Eratostenes Zirenekoaren lan zientifikoaren bidez ere. Iberia, Galia eta Britaniari dagokienez, zeinak bere *Geografiako* 3. liburuan jasotzen baitira, Polibioaren lana erabiltzen du. Estrabonen *Geografia* deskribatzailea da, eta datu historikoak, kontsiderazio filosofiko-kulturalak eta etnografikoak erabiltzen ditu. Guregana iritsi da X. mendea baino geroagoko bizantziar kodex baten bidez, zeinaren lehen argitaraldi bat egin baitzuen Aldo Manuziok Venezian 1516an<sup>3</sup>. Bestalde, Pomponio Melak, jatorriz hispaniarrak (Tingentera/Algeciras) *De Chorographia* idatzi zuen Klaudio enperadorearen garaian. Lan horren 3. liburukiak Hispania, Galia, Germania, Afrika eta Asia deskribatzen ditu.

Baina errepara diezaiogun hasierako ikasgai honen izenburuari honetaz hitz egiteko:

## Denbora

Hesiodok, *Teogonia* bere idazlanean, zeina K.a. VII.-VI. mendeetan idatzi baitzuen, kosmosaren eta greziar mitologiaren sorrera azaltzen zuen, halako eran non zeruaren eta luraren arteko batasunak sorrarazi baitzuen sortutako guztia. Denbora (Khronos grekoz) titanen artean handiena zen, Uranoren (zeruaren) eta Gearen (luraren)

---

3. Churruca Arellano, J.: «Fuentes de la Geografía de Estrabón», *Iura Vasconiae*, 5, 2008, 269-340. or.

seme. Khronos eta bere arreba Rea izan ziren Olinpoko jainko gehienen gurasoak, besteak beste Zeusenak. Greziar literaturak jasotzen dituenen artean daude Khronosen mitoa, bere seme-alabak irensten, tronutik kenduko ote duten beldurrez, edo Zeusen salbazioa, amaren amarru batengatik, edota Khronosi nola eman zioten goragarri bat, bere ondorengoak ahotik botarazteko (horien artean Hades, lurpeko munduaren jainkoa, eta Poseidon, itsasoaren jainkoa). Orduz gero, Khronosek naturaren kontra kontrolatutako munduan era guztietako zoritxarrak izan ziren, eta Olinpoko jainkoak ziren kaosa kontrola zezaketen bakarrak. Jainko horien artean Zeus zen nagusi, zeruak menderatzeko zituen arma boteretsuei esker, hau da, ekaitz elektrikoak. Modu ederra da oso munduaren sorrera azaltzeko, beti ordenaren eta kaosaren arteko etengabeko borrokan, non Denborak zeregin nagusia eta aldi berean aldakorra baitzuen, ziurgabetasunen mende eta haiei ezin ihes egin zirela, bilakaera kosmikoaren bultzada saihetsezinagatik.

Denbora mitiko eta denboragabe hartatik denbora kosmikoaren behaketara igaroko ginen. Datu zientifikoek sendotasuna emango zioten **denbora astronomikoari**, urtea edo 12 ilargi hilabeteren zikloa (*annulus*) neurtzearekin batera, eta Kantzer tropikoaren gaineko herrialdeetan urtaro klimatologikoak igarotzen ikus-teko modua izango zuten. Ilargiaren zikloa, batetik, 29 eguzki egun baino gehixeago dituen, eta Eguzkiaren zikloa, bestetik, 24 ordukoa, eguzkia ateratzen denetik sartu arte, eta eguzki orbitan 365 egun baino gehixeago egiten dituen, egokitu egin behar ziren eta lan hori oso zaila izan zen, eta erromatar denboran arautu zen, juliotar erreformarekin (Alexandriako Sosigenes astronomoaren kalkuluetan oinarritu zen erreforma hori, eta, Tito Livioaren esanetan, Julio Zesarrek bultzatu zuen). Juliotar egutegia eguzki eta ilargi zikloak egokitzen saiatu zen bisurteen bidez, zeinek egun bat gehiago baitzeukaten otsailean lau urtean behin. Hilabetea *kalenda*, nona eta idusetan banatzen zen lehen bezala erromatar egutegi berrian, baina hilabeteen ordena aldatu egin zuten, eta urtarrila eta otsaila urte hasieran jarri zituzten. Juliotar egutegia nagusitu egin zen azkenean erromatar Inperioan, eta gero europar kontinentean eta bere eraginpean zegoen ingurunean.

Baina badaude denboraren beste ikusmolde batzuk, denbora/egutegia ereduari ihes egiten diotenak. Badago **denbora psikologikoa**, gertakariak markatzen dituztena, eta haiengatik izaten dugu kontzientzia haien aurreko eta ondorengo garaiak izan zirela. Krisiaren, gainbehera historikoaren, nozioak zerikusia dauka denboraren pertzepzio psikologiko horrekin. Aurrerapen teknologikoak, mundu berrien aurkikuntzak (gure planetan edo galaxiako beste batzuetan) aukera berriak ikusarazten dizkigute. Garai berekoa izatearen kontzientziak (68ko maiatzeko belaunaldikoa, belaunaldi digitalekoa) agerian jartzen digu kidesun sentimendu bat daukagula, dinamika sozial gisa ulertzen dugun horretan ondorioak dituen, zeina belaunaldien arteko lotura eta estratifikazio moduen mendekoa baita. Belaunal-



dietan konfrontazioa izaten da kultura elementuen transmisioan, jasotakoaren eta berrikuntzaren artean, eta gazteek zalantzan jartzen dituzte aurreko belaunaldietakoek bizitzan oinarritzat zeuzkaten ziurtasunak<sup>4</sup>.

Baina Historiari dagokionez, **denbora historikoaz** hitz egitea interesatzen zaigu, hau da, kontakizun historikoan azaltzen den denbora horretaz, zeina beste modu batez nabaritzen baitugu, gizakion bizipenak gertakari unibertsalekin erlazionatuz, sarri sinesmenei edo mugarriztat hartzen diren gertakari jakin batzuei lotzen zaizkien gertakari unibertsalekin, zeinetatik aurrera hasten baita denbora kalkulatzeko aldi bat. Bi modu daude denbora hori begiratzeko. **Denbora ziklikoa** deritzana, zeina infinituki errepikatzen baita hasierarik eta amaierarik gabe erlijio sinesmenen arabera (berraragitzearen kontzeptua hinduismoan, budismoan, taoismoan, edo Afrika, Amerika eta Ozeaniako kultura batzuetan), edo eguzkiaren orbitaren eta naturaren zikloekin lotutako erlijio jaien arabera (sinesmen xamanikoak, druidikoak); edota giza generoaren bizitza zikloaren arabera. Ziklo hori greziar historiografian erregimen politikoetara eramaten da, bere jaiotza, hazkunde eta gainbehera aldiekin batera.

**Denbora linealak**, aitzitik, kultura klasikoentzat ospakizun garrantzitsu direnatan du abiapuntua (Olinpiar Jokoetan Grezian, Erromaren fundazioan edo datazio kontsularraren sistemaren erromatar munduan); edo erlijio monoteistentzat garrantzitsu direnatan (zoroastrismo, judaismo, kristautasun edo islamismoarentzat). Erlijio horiek munduaren sorrera, Kristoren jaiotza edo Mahomaren irteera Mekatik Medinara hartzen dituzte Aroen abiapuntutzat, eta horietatik abiatuz egiten dute denboraren zenbaketa jarraitua. Europako Goi Erdi Aroko historiografian denbora historikoaren linealtasunarekin denboragabetasuna bilatzen zuten (mugarri hauek zituzten: Sorrera, Kristoren etorrera eta giza generoaren erospena, eta munduaren akabera Azken judizioaren ondoren), eta Historiari eginkizun eredu-emailea esleitzen zioten. Orainaldia iraganaren boterearen eta tradizioaren garrantziaren bidez arrazoitzen zuten, eta horrek halako urrutiratze psikologiko bat eragiten zuen bere anakronismoarengatik.

Denboraren bi ikusmolde horiek ikusten dira Erdi Aroko historian, eta gertakarien eta protagonisten arteko lotura eta kronologia berreskuratzen dute garai klasikoetan bezala. Geratzeko etorri zen erritmo genealogikoa, zeinak **segida genealogikoak** sortu zituzten errege eta agintarien belaunaldien bidez irudikatzen

---

4. Ricoeur, P.: *Temps et récit, t: III, Le temps raconté*. Paris: Du Seuil, 1984, 162. or., 2. oharra.

baititu aldi historikoak. Segida horietan dinastia batzuek arrakastatsu edo deitoragarri izatearen marka utzi zuten, eta, halaber, handitasun eta gainbehera aldiak gobernatu zituzten gizarteentzat. Zenbaketa mota hori eredu eta erreferente izan zen geroagoko iturri historikoak sortzeko, eta ez bakarrik historia zibilaren arloan, baita elizaren historiaren arloan ere. Hala, VI-IX. mendeen bitartean idatzi zen herri barbaroen Historia bakoitza (godo, bandalo, suebo, franko eta saxoniarrena, gure inguruetik hurbilen daudenenak aipatzearen), eta, berdin, IX. mendearen amaieratik aurrera, idazten hasi ziren iberiar penintsulako kristau erresumen kronikak, inbasio musulmanaren ondoren okupatutako lurraldeak berreskuratzeko borrokaren zuribide ideologiko gisa, denek kristau erresuma jaioberrietako erregeen *Genealogiak* hartzen dituzte, eta horien artean daude Iruñea-Naiarako erregeenak, zeinak Rodako kodexean<sup>5</sup> baitaute jasoak.

Denbora historikoaren ikusmolde lineal edo zikliko horren aurrean, **presentismo historikoaren** nozioa daukagu Historia garaikidean: Modernitatearen kontzeptuarekin lotuta dago, ez hainbeste iraganarekin duen loturarengatik, baizik eta gure denborarekin duen loturarengatik, eta haustura moduko bat da, XVIII. mendearen amaiera erreferentziatzat izango lukeena, alegia, frantziar iraultza eta gizaki berriaren jaiotza non lehentasuna izango baitzuten gizabanakoaren eskubideek Estatuari eta gizarteari dagokienez. Presentismo historiko honek iragana ahazteko joera bat ekarri du (eta gutxiesteko joera bat ere bai nire iritzian), *homo historicus* izenekora ez itzultzeko ahalegina, iraultza garaikideen eraginpeko gizaki berriak ez balitu bezala bere aurrekoek lehenagoko mendeetan izan zituzten arazo berak. Jacques Le Goffek bere *Histoire et Memoire* lanean<sup>6</sup> Historiari buruz galdetzen die psikologo, hizkuntzalari, antropologo eta historialari batzuei. Haien erantzunetatik ondorioztatzen da modernitatearen aurkakoak liratekeela antzinatea (antzinakoa dena, tradizionala dena), eta baita ere aroen ohiko banaketa, aro aldaketa hori arrazoitzen duten gertakarien bidez (antzinatea, Erdi Aroa, Aro Modernoa, Aro Garaikidea).

Izan ere, aspaldiko erreferentzia historikoezikiko haustura hori errekurrentzien fenomenoarekin kontraesanean egon arren. Hala gertatzen da Errenazimenduko historia politikoko pentsalari batzuek iraganari buruz egiten dituzten aipamenekin, hala nola Makiavelok florentziar errepublikari buruz egiten duen gogoetarekin

---

5. X-XI. mendeetan idatzi zuten, eta Naiaran egon zen XII. mendea aurreratua izan arte, ondoren 1699an Roda de Isábenako katedralera eraman zuten, eta gero Dormer Aragoiko kronikagilearen eta beste jabe batzuen eskuetan egon zen, harik eta 1927an Estatuak erosi eta Historiaren Erret Akademiari utzi zuten arte.

6. Le Goff, Jc.: *Histoire et Mémoire*. Paris: Gallimard, 1988.

(Medicitarren igoera eta erorialdia, Savonarolako aldia), eta bere uste honekin ere bai: gobernu formak endekatze eta kolapsora iristen direnean, jatorrira itzuli behar direla<sup>7</sup>. XVIII. mendean Montesquieu klasikoetan oinarrituko da aurkako efektua proposatzeko, hots, Estatuaren botere banaketa egitea, botere horiek guztiak Despotismo Ilustratuko subiranoak berarengan ez biltzeko<sup>8</sup>. Ez aipatzearen zenbait errekurrentzia historiko, beren atzerako bidean bai literaturan bai arkitekturan ere estilo artistiko batzuen inspirazio direnak: greziar inspirazioko itzulera neoklasizismora Prusian (Schinkel) edo Bavieran (von Klenzeren Walhalla Ratisbonatik gertu), Ipar Amerikako neoklasizismoa, edo italiar faxismoaren erromatar inspirazioa XX. mendean.

Antzinako gai askok indarra izaten jarraitzen dute Zuzenbide pribatuaren esparruetan: herritarren eskubideen berme-emailea den Estatuaren ikusmoldea, botere politikoaren kontrola eta Estatuaren botereen banaketa eta independentzia (betearazlea, legegilea, judiziala). Aurten errusiar Iraultzaren (1917) mendeurrena betetzen da. Iraultza hartan erlijioaren desagerpena bultzatu zuten, herriaren opioa zelakoan, eta harri eta zur dakusagu Sobietar Batasuna desagertu ondoren Mosku eta Kieveko patriarkatua eratu direla berriro.

Beraz, ikusten dugunez, *antzinakoa denaren* kontzeptuak *moderno denaren* kontzeptuaren aurkako gisa ñabardura asko ditu. Esan dezakegu Historiak linealtasun prozesu bati jarraitzen diola, aurrerabidearen hobekuntza sozial eta indibidualen ideiarekin lotzen duguna, aurreratze hori jarraitua ez, baizik eta krisi esaten diegun agortze faseetara iristen bada ere. Fase horietan klasikoetara jotzeko tentaldia izaten dugu. Klasiko deitzen zaie gizakiaren eta gizartearen arazo unibertsalak aipatzen dituztelako, eta eredu, kontsolamendu eta itxaropen iturri direlako guretzat, modua ematen digutelako ulertzeko gizateriak zailtasun ugari izan dituela (iragan denbora

---

7. *Il principe* bere lan gorenean, Makiavelok erromatar errepublika erabili zuen erreferente gisa. Errepublikan botere handiko diktadorearen figura zeukaten garai zailtan arriskua aldentzeko, eta printzearen botere absolutuaren zuribidetzat erabiltzen du herria babestu egin behar duela botere korporatiboen aurka, Italiatik kanpo gertatzen zen bezala, Estatu indartsu zentralizatu bat lortzeko.

8. Montesquieu, baroia: *De L'esprit des Loix ou du rapport que les loix doivent avoir avec la constitution de chaque gouvernement, moeurs, climat, religion, commerce. A quoi l'auteur a ajouté des recherches nouvelles sur les loix romaines touchant les successions, sur les loix François et sur les loix féodales*. Genevan argitaratu zuen Barrilet et fils argitaletxeak izenik gabe 1749an. Urte batzuk geroago, 1772an, *l'encyclopédie française* lanaren 5. liburukian, d'Alembertek Charles de Sécondat Montesquieu baroi, Burdeoseko Parlamentuko buru, Frantziako Akademiako kide eta lanaren egilearen gorazarrea egingo du. Aldez aurretik saiakera hau idatzi zuen: *Considerations sur la cause de la grandeur des Romains et de leur décadence*. Parisen argitaratua: Ch. Delagrave 1734.

guztiak ez ziren hobeak izan), eta, zailtasun horiek gorabehera, gizakia bizirik irautea eta bere bidaiari jarraitzea lortu du. Mary Beardek dionez, ez genuke antzinako Erroman bizi nahi, basatiegia irudituko litzaiguke gure egungo sentsibilitaterako, hain ohitua baitago legeria batek babestutako eskubideak eskatzera. Ez gara Erroma, baina haren ondorengoak gara.

## Oroimena

Ez dago prozedurarik, iraganera itzultzea ahalbidetzen digunik (fikzioan baino ez dago denboraren makina), eta zientzia historikoak ezinduak daude iragana benetan izan zen bezala ezagutzeko, iragana ezin baita berreraiki. Iragan hori begiztatu besterik ez dezakegu egin (irudi batek ispiluan egiten duen isla bezala), bere hondar, arrasto, aztarna, froga material eta dokumentalen bidez. Horiei guztiei hainbat galdera egin behar dizkiegu, gero eta konplexuagoak direnak, diziplina anitzeko ikuspegi eraginagatik, eta ikuspegi horiek dauzkaten loturengatik arkeologiaren eta giza eta gizarte zientzien ekarpen berriekin. Bestalde, Historia beti osatugabea izango da, zeren geure garaitik zenbat eta gehiago aldendu, orduan eta arrasto gutxiago uzten dizkiguten gertakari, prozesu eta erakundeak edukiko baititugu, eta ezagutza historikoa arrasto horiek uzten dizkigunetatik daukagu<sup>9</sup>. Ez dugu ahaztu behar gizarteko hainbat sektorek ez zutela munduan izan zituzten esperientzien testigantzarik utzi, zeren lekukotasun hori eman ahal izateko mugak baitziren kultura ezagutzak, maila ekonomikoa eta, egun dugunarekin alderatuz, datuak konserbatzeko teknologia eskasa.

Badago oroimen artxibistiko bat, zeina bi arrazoi hauengatik gordetzen baita: dokumentuek froga izateko daukaten gaitasunagatik, Zuzenbide Erromatarraren kodetze denboretatik aitortua, eta dokumentazioaren lekukotasun funtzioagatik. XIX. mendeko austro-germaniar eskolako Zuzenbidearen Historian espezialista direnek esaten duten bezala (von Sickel, Ficker, Brunner), izaera juridikoko dokumentua (jatorria Goi Erdi Aroko kantzilertzetan zeukana edota gobernu eta administrazioa kudeatzeko beste bulego batzuetan, edo, bestela, notariotzan) hori da egitate baten lekukotasuna eta zuzenbide baten bermea. Horri guztiari gehitzekoak lirake izaera askotarikoko testu ugari, zeinak lekukotasun funtzioa baitute eta artxibo eta liburutegietako eskuizkribuen ataletan gordetzen baitira. Duela zenbait urtetatik hona herrialde bakoitzaren Dokumentu eta bibliografia oroimena osatzen

---

9. Moradiellos, E.: *Las caras de Clío. Una introducción a la Historia*. Madril: Siglo XXI, 2001, 59-60. or.

dute, eta oroimen hori ondarea babesteko lege espezifikoek arautzen dute. Berez espontaneo eta ez-kaltegarri den oroimen horren parte bat konotazio txarrekoa bihur daiteke, egoera politiko berezi batzuetan, eta egozketa-froga, gainera, bertan ageri diren subjektu juridikoen aurka. Eskurazina izan daiteke Estatu sekretuarekin zerikusia duten arrazoiengatik (gure erakunde parlamentarioetan badaude sekretu ofizialen batzordeak, eta batzorde horietako kideak dira dokumentu bereizietarako sarbidea duten pertsona bakarrak).

Artxiboko dokumentazioa gerrako harrapakin ere bihur daiteke, etsaiak Napoleonen<sup>10</sup> denboretatik bigarren mundu gerra arte indarrez ebatsitako artelarena bezain garrantzitsua. Gerra horretan Europako artxibo asko lekualdatu zituzten Alemaniako okupazio indarrek, eta gero sobietarrek Moskura eraman. Errusian daude gordeta, halaber, armada gorriak Berlinerako bidean askatu zituen alemaniar kontzentrazio eremuetan zeuden artxiboak. Halaber, iparramerikarrek Smolenskoko artxiboak eskuratu zituzten (sobietar alderdi komunistaren antolaketari buruzkoak), alemaniarrek Ukrainan konfiskatu zituztenak, eta Estatu Batuetara eraman zituzten. NSDAPren (Alderdi Nazional Sozialistaren) artxiboak ere eskuratu zituzten, Allgaun aurkitu zituztenak, zeinak Nurembergeko epaiketako auzipetuei krimenak egozteko erabili baitzituzten eta 1994an Alemaniara itzuli baitzituzten<sup>11</sup>. Dokumentazio hori informazio iturri gisa erabili zuten munduko bi potentzia handien arteko konfrontazioan (Sobietar Batasuna eta AEB) gerra hotzaren denboran.

Baina prozesu batzuek badute ahalmena oroimen historikoa berriaz aldatzeko. Horien artean **damnatio memoriae** izeneko dago, hau da, uste ona galdu duten eta ahanzturara kondenatuak izan diren pertsonaia historikoekin lotutako arrastoak deliberatuki suntsitzea. Egiptoko garaitik da ezaguna, eta erromatar Errepublikaren eta Inperioaren garaietan hartu zuen izatasuna, Senatuak eta erromatar herriak zigor hori betearaztea erabaki zutenean ez edukitzeko gogoan zenbait buruzagi politiko eta militar, uste ona galdu zutelako (gerra zibiletako galtzaileak ziren, edo erakundeekin eta politikoki zuzena denarekin errespetu gutxi zuten agintariak, edota moraltasun publikoaren mugak gainditu zituzten bizimodu lizuneko enperadoreak) eta horrek oroimen historikoan ahaztuak izateko aukera asko ematen zuelako. Kondena

---

10. II. mendeurrena da (1816/06/28) Napoleonen aginduz 1810-1811. urteetan Parisa eraman zituzten Simancaseko Artxiboko dokumentuen lehen sorta itzuli zutenetik. Ez zituzten denak itzuli 1942ra arte, Franco jeneralak eta Pétain jeneralak sinatutako akordioaren ondoren.

11. Coeuré, S-Monier, F.: «De l'ombre à la lumière. Les archives françaises de retour de Moscou (1840-2002)», in *Archives secrètes, secrets d'archives*, Paris: CNRS, 133-148. or., eta bereziki 134-136, 139. or.

horren ondorioak batez ere oroitzapenezko arkitekturaren irudietan ikusten dira (eskulturak, baxuerliebeak), beren ondorengoek askotan berrerabiliak, baina ez da iristen ez artxiboetako iturrietara ez haien ekintza gaitzesgarriak aipatzen dituzten historialarien kontakizunetara.

Geroago, bereziki Erdi Aroko errege familien adar legitimo eta sasikoen arteko gerra zibilek ekarriko zituzten dinastia aldaketengatik jauzi genealogiko bat gertatuko zen, eta errege galtzaileak ahanzturara kondenatuko zituzten errege pribilegioak berresteko dokumentuetan, prozedura administratiboa bete gabe utziz (Enrike II.a, Trastamara dinastiaren sortzailea, zeinak legitimitatea bilatu baitzuen Gaztelako errege gisa, Alfonso XI.aren sasiko ondorengoa zelako, eta agirietan behinere aipatu ez zuena Pedro I.a bere anaiordea, bere aurrekoa eta erregegai legitimoa zena, Campo de Montielengainuz hil zuena).

Beste prozesu horietako bat da **oroimen manipulaturia** izenekoa. Paul Ricoeur filosofo eta antropologoak oroimen instrumentala esaten dionari dagokio, zeina identitatearen arazoari lotzen baitzaio. Identitatea berez ez da elementu oso sendoa denboraren joanarekin duen harreman zailagatik, baina Derek Parfit anglosaxoiaren ikuspegi murriztailearen aurka (bere ustez denboran zeharreko identitatea gertakari fisiko eta psikiko aldakor batzuek osatzen dute elkarrekin kateaturik, eta bakoi-tzaren konpromisoek eta erantzukizunak haiekin zerikusia dutenez, askatu egiten dute iraganarekiko erantzukizun pertsonala izatetik), Paul Ricoeur filosofoak uste du lotuak daudela identitate pertsonal subjektiboa (*idem*) eta subjektuaren ekin-tzen gaineko ardura (*ipse*). Tentaldi identitarioa *ipsetik* idemera desbideratzean datza, oraingo denbora ez balitz bezala iraganaren ondarea.

Bigarren Mundu Gerra amaitu ondoren, Hanna Arendt filosofo judua Alemaniako Errepublikan Federalera itzuli, eta 1950ean *Bisita Alemanian. Erregimen nazia-  
ren ondorioak*<sup>12</sup> izeneko txostena idatzi zuenean, egiaztatu zuen Europan inon ez zela Alemanian bezala gerra krimenen gaia isilarazten, ez dago jakiterik lotsagatik ote zen edo axolagabe zirelako, herrialde hura ere hondatu zuen hondamendiarekin. Halatan Alemaniako Errepublikan Federaleko biztanleek konparatu egiten zituzten beren arazoak Europako gainerako biztanleen arazoekin, eta uste zuten gerrak era-

---

12. *Eichmann Jerusalem* lanean (1963an argitaratu zen) gaizkiaren banaltasunaz hitz egiten du, baina auzitan jartzen du, halaber, judutar kontseiluen eginkizuna. Kontseilu horiek ghettoak gobernatzen zituzten eta, jakin gabe, deportatuak izango zirenen zerrendak osatzen zituzten. Garai hori juduen historiaren garai ilunenetakotzat hartzen du, komunitatearen buruek beren herrialdearen suntsipenean izan zuten eginkizunagatik. Israelgo Estatuak kritikatu egin zuen, jakina.

gindako sufrimenduaren balantza orekatuta zegoela, alemaniar herritarrek ere beren kuota bazeukatelako sufrimendu horretan. Ahaztu egiten zuten Alemaniak hasi zuela gatazka, ez zuten onartu nahi gertakarietan izan zuten parte-hartzea. Denboraren joanarekin erantzukizuna saihesteko jarrera hori esparru askotara hedatu da, esan ohi den bezala, historia ez delako errepikatzen, baina argudio errugabetzaileak bai. Gertakari lotsagarrienak ukatzera ere iritsi dira batzuk (kontzentrazio eremuak egon zirela ukatu dute muturreko nazionalismoaren esparruan kokatzen diren zenbait sektore politikoko batzuek), egia historikoa argi eta garbi manipulatu.

Identitatearen hauskortasunaren beste zergatiko batzuk dira bestea mehatxuztat hartzea (gaizki onartutako bestetasuna) eta identitatea indarkeriaren ondorio dela esatea, ez baitago komunitate historikorik, gerra sorburu izan ez duenik. Oroimenaren manipulazioak lotuta daude identitatearen zaindaria gisa mozorrotzen diren prozesu ideologikoekin, eta erreplika sinboliko bat eskaintzen dute, nortasun hauskor, aldarrikatu eta eskatua sendotzeko helburuarekin<sup>13</sup>. Bestalde, garaikideek biktimen jarreraren kokatzeko duten gogoia, T. Todorovek aipatzen duen bezala, biktimei estatus bat ematen die, zeinaren ondorioz gainerako herritarrak biktimei ordaina ematera behartuak sentitzen baitira<sup>14</sup>. Kasu horietan gauzatzen da oroimenaren betebeharra justiziaren agindu gisa.

**Oroimen isildua.** Psikoanalisarekin erlazioa duten argudio psikologiko eta teknikoekin justifikatzen da, eta gizabanakoen eta herrien giza oroimenean gertakari traumatikoak ahazteko beharra proposatzen du. Baina historian ezin dira alde batera utzi aldi zailak, kide batzuen jokabidearengatik gizartearentzat harrotasunerako arrazoi ez direnak. Gertaera isilduak dira, eta historiografia ofizialak ia aipatu ere ez ditu egiten, aldian behin eztabaidak sortzen badira ere ikusteko zer erlazio duten elkarrekin historia ofiziala esaten zaionak eta egitasun historikoak. Oroimen isilduak hauekin dauka erlazioa: gerra gatazkekin, gerra zibilekin, okupazio militarrekin eta bere aurkako erresistentziarekin, kolonialismotik eta abarretatik askatzeko borrokatzen diren matxinatuen aurkako errepresioarekin, garaituen aurkako errepresaliekin. Joan den mendeko europar historiako gertaera beltzak dira (Espainiako Gerra Zibila, Bigarren Mundu Gerra), batez ere mundu mailako gatazkan milioika pertsonaren heriotza eragin zutenak, ehunka hiri eta milaka hiri komunitateren suntsiketa, eta produkzio sarearena gainera, eta lekualdatuen kopuru eskerga sortu zutenak, Alemaniako eta Italiako erregimen faxisten porrotaren ondoren

---

13. Ricoeur, P.: *La memoria, la historia, el olvido*. Madril: Trotta, 2003, 110-118. or.

14. Todorov, T.: *Los abusos de la memoria*. Bartzelona: Paidós, 2000, 56. or.

beren jatorrizko herrialdeetara itzuli nahi zuten herritarrena. Bestalde kolaborazionisten aurkako mendekua ere izan zen, etsaiaren okupazioa jasan zuten herritarrek gauzatu zutena.

Garai ilun horiei buruzko isiltasun historiografikoa gaur den egunera arte iritsi da zenbait arrazoi direla-eta: zenbait parametro sortzeko beharra sendatzeko garaie-tan duintasunez jokatzeko, Europaren berrindartze morala, oinarritzat hartzen duena nazioarteko zuzenbidea eta gizakiaren eskubideak berreskuratzeko beharra. Horre-gatik guztiagatik historialariek ez zuten modurik izan joan den mendeko denbora ilun horiei buruzko artxiboetan gordetzen den informazio emaria ezagutzeko. Ai-tzitik, Europa berri baten irudia sortu zen, iraganeko akatsak saihestu nahian, harre-man transnazionalen giroan, eta ondorioa izan zen Europako Ikatz eta Altzairuaren Erkidegoaren sorreraren akta. Merkatu bateratu horren 60. urteurrena betetzen da aurten, eta Europar Batasun bihurtu da, esparru ekonomikoa gaindituz eta esparru politiko eta sozialera hedatuz. Bestalde, mundu mailan, 1945eko urriaren 24an, 51 herrialdek Nazio Batuen Erakundea sortu zuten San Frantziskon, eta Lehen Mundu Gerraren ondoren Genevan sortu zen Nazioen Elkartea eraldatu zuten. Egun 193 he-rrialde dira Nazio Batuen Erakundearen kide, eta munduan bakea eta segurtasuna, eta garapen ekonomikoa eta soziala lortzeko lanean dihardute. Ziur asko, bere jardue-ra aitortuenak dira iheslari eta lekualdatuei laguntzeko Agentziarena (ACNUR), zeina Bigarren Mundu Gerra bukatzearen ondoriozko arazoak arintzeko sortu baitzuten, eta Hagako Nazioarteko Justizia Auzitegiarena, non genozidio delituak eta gizate-riaren aurkako delituak epaitzen baitira. Horiei gehitu egin behar zaizkie salatzen jarduera eta giza eskubideak ikuskatu eta kontrolatzeko jarduera. Europar Batasunak bere justizia auzitegi propioak dauzka erakunde horretan.

## Oroimena eta ahanztura

Behialatik ziur badakigu badaudela teknikak ahalegina egiteko denboraren joana-rekin oroimena gal ez dadin. Egiptoar, greziar eta erromatar zibilizazioetako oroi-tzapenezko monumentuen zertarakoa zen garai jakin bateko historiaren protago-nista handien gertaera aipagarriak goraiatzea eta aitortzea, baina, horretaz gainera, baliabide bihurtzen ziren denboraren halabeharrezko joanarekin izaten den oroime-naren ahanztura/desagerpena saihesteko. Errenazimentuko Humanismoak irudi eta argudioak sortu zituen, giza generoaren finitutasuna gainditzeko ahalegintzeko (ez ditzagun ahaztu Petrarkaren *Garaipenak* liburua, XV. mendeaz geroztik zabalkunde handia izan duen lanetako bat. Lan horrek, beste garaipen batzuen artean, herio-tzaren gaineko garaipena aztertzen du, zeina aforismo honen bidez laburbil baitai-teke: inor ez da behin betiko hiltzen, norbaitek haren oroitzapenari eusten badio. Bestela, bada adierazpen garaikideago bat, esaten duena gizaki orok, bere bizitzaren



arrastoa uzteko, zuhaitz bat landatu behar duela, liburu bat idatzi edo seme edo alaba bat izan [hobeki hirurak egiten baditu]).

Paul Ricoeur filosofoak, bere *Oroimena, Historia, Ahanztura* lanean, argudioak aurkitzen ditu Henri Bergson<sup>15</sup> filosofoaren lanean, ahanztura aztertzeko. Ahanztura oroimenarekin hertsiki lotua omen dago, eta oroimenaren baldintzatzaileetako bat omen da, ahanzturak selektiboki jokutzen baitu eta erabakigarria baita oroitzen eratzeko. Bi ahanztura mota daude, *behin betikoa*, zeina neurozientziak ikeritzen baitu, aztarnak suntsitzeagatik gertatzen delako, gizakia zahartzeari eskuarki lotzen zaion patologia baten eraginez. Bestetik, *erreserba* ahanztura dago, edo oroitzen eratzeko latentsia, zeinak norberaren oroimena eta taldearena sortuz betetzen baitu bere funtzioa.

Psikoanalisiak, gizabanakoei dagokienez, eta Historiak, gizarteei dagokienez, erakusten dute iraganarekiko fideltasuna bigarren mailan geratzen dela norberaren osotasuna begiratzeko borondatearen aurrean. Oroimena selektiboa da, zeren gizabanakoak ahalmena duen bezala bere deuseztatze fisiko eta mentala ia eragin zuten gertaera traumatikoak oroitzen eratzeko (kontzentrazio eremuetatik bizirik atera zirenek bezala, egungo gerretako haur soldaduek bezala), gizarteek ere badute ahalmena garai jakin batzuetako gertaera historikoak ezkutatzen, zeinetan kaosak, desgobernuak, Zuzenbide Estatuaren desagertzeak zauri hain sakonak eragin baitzizkien haien ondorioak jasan zituztenei, eta haiek historia ofizial bat eta ez benetakoa gordearazi baitzuten. Horrek guztiak zerikusia dauka joan den mendeko 40ko hamarkadako gatazkako urte atsekabetsuetan bizirik iraun zuten herritarren jakin nahi ezarekin. Bai mendebaldeko Europak, bai kontinenteko gainerako herrialdeek bide horren aldeko hautua egin zuten, bizirik irauteko estrategia gisa, traumaren ondorioetatik ihes egiteko, eta erantzukizunak saiheste aldera, gizarte berri eta ahazkor bati bide emateko<sup>16</sup>.

Ohiz kanpoko egoera horietan bizirik iraun zuten biktimek ez zuten ahantzi, eta kaltearen ordaina eskatu ahal izan zuten. Eskakizun horiek hezurramitzeko justifi-

---

15. Bergson, H.: *Histoire et Mémoire. Essai sur la relation du corps à l'esprit*. Paris: Félix Alcan arg., 1896. Erreakzio bat da *Les maladies de la mémoire*, 1881, izeneko lanean Th. Ribotek erakusten zuen erredukzionismoaren aurka, nerbio sistemaren funtzionamendua bakarrik aztertzen baitzuen. Bergsonen iritzian garunak (materia) espirituari dagokionez ekintza organo gisa jarduten du; ez da oroitzen eratzeko bilduma soila. Arima/gorputza bereizketaren oinarria ez litzateke espezialtasuna, baizik eta denborazkotasuna. Arima iraganaren lekua litzateke eta gorputza orainaren lekua.

16. Ricoeur, P.: *La memoria, la historia...*, 582. or.

zia egin behar zen, kaltearen ordainerako bide bakarra baitzen eta arazoa sortu zutenek zer erantzukizun izan zuten ezartzeko modua. Horrek ez du esan nahi biktimak pozik geratzen zirenik askotan, zeren justizia aplikatzearekin egiaztatu besterik ez baitzen egin lege eta joko arau indardunekin zegoela harremanean zigorra. Lortzen zaila bada ere, Historiako garai beltz horiek gainditzeko behin betiko aukera irainak barkatzea da. Ricoeurrek barkamenaren gaiari eskaintzen dio *Oroimena, Historia, Ahanztura* lanaren amaiera, *barkamen zaila* epilogoan, zeinaren helburua berradiskidetzea baita, normalizazio soziala, nazionala eta gainerakoak lortzeko.

## Historiaren egitekoa eta historialariarena

Une honetan, uste dut ondoriozta dezakegula Historia kontakizun bat dela, eta greziar mitologiarekin lotzeko, Clio, Zeus eta Mnemosineren (oroimenaren) alaba, dauka musa inspiratzailezat. Kontakizun historikoaren idazleen objektibotasuna aspaldian jarri zen auzitan, zeren Historiaren idazteko moduan, Grezian sortu zenetik, asmo garbia baitago. Historia antzinatean hezkuntzarako tresna izateko baliatzen baldin bazen, erromatar aldian helburu partikularrak dituen historia sortu zen, botere politikoa lortzeko propagandarako baliabide izateko, edo boterearen erabilera justifikatzeko, eta elite protagonisten irudi ona uzteko aldi berean. Ondoren gainditu ez diren gailurretara iritsi zen Erroma. Diskurtso historiko eta monumentala erabili zuten bere agintari gorenen bikaintasuna aldarrikatzeko, eta hori idatziz jasota utzi zuten etorkizunerako.

**Propaganda historia:** protagonistak berak bere lorpenak aldarrikatzen ditu, objektibotasun faltuko diskurtso erretorikoak erabiliz (hirugarren pertsonan kontatzeko modua, Zesarrek egin zuen bezala), edo apalkeria baztertuz (Augustok egin zuen bezala), Historiaren aldeko epaia lortzeko. Flaviar enperadoreek (Tito), eta bereziki Antoniarrek, zeinek boterera iristeko modua sistema jarauntsi bihurtu baitzuten, erdietsi zuten erakundeak (Senatua) edo gobernuan ondorengoa zen enperadorea berenganatzea. Halatan haiek tituluen sustatzaile bihurtzen ziren (beren aurrekoak jainkotzen zituzten) edo oroitzapenezko monumentuen eraikuntzaren sustatzaile, gobernu lanetan eta Inperioaren defentsan egindakoak hil ondoren goresteko.

Julio Zesar izan zen lehena baliabide horiek erabiltzen. Politikari ausarta zen, prestakuntza erretoriko onekoa, bere irudi historikoa sortu zuen bere balentriak kontatzen, eta konkistatzailea izan zelako eta Errepublikaren amaierako aldiaren eta Inperioaren hasieraren arteko giltzadura gisa erromatar politikan parte hartu zuelako nabarmentzen da. Bere *Galiatako gerren iruzkinak* liburuan kontatzen du nola izendatu zuten Galiako kontsulorde, eta nola konkistatu zuen 8 urtean Nar-

bonensetik abiatuz Helvetian eta Rhinen beste aldean (germaniarren, belgiarren lurretan) barneratzen zen lurraldea, nola begiztatu zuen Britania, eta ziurtatu Akitania, eta nola garaitu zituen galiarrak Alessiako setio eta errendizioaren ondoren. Dirudenez, lana Bibracten, Heduarren hirian (egungo Autunetik gertu) idatzi zen K.a. 52-51. urteetako neguan, gerra amaitu baino lehentxeago.

Lanaren informazio iturriak hauek izan ziren: Zesarrek Senatura bidalitako txostenak, bere korrespondentzia ofizial eta pribatua, eta Zesarren legatuen txostenak. Guztia Zesarren idazkaritzak bildua, Hirtius buru zuela, Zesarrek berak zuzendu eta ikuskatuta. Prokotsularen dohainak gorestea zen helburua: zientzia militarra, neurritasuna, lastertasuna bere ekintza militarretan, zortea, ospea bere soldaduen artean, errukitasuna. Baina, egiaz, buruzagia bere legatuen merezimenduez baliatzen zen, bere aurkariak gutxiesten zituen (Ambiorix, eburoien edo belgiarren burua, eta Vercingetorix, galiarren burua izan ezik), Galia eta Germaniari buruzko informazio etnografikoa aldatu egin zuen, Ponpeioren aldekoak mespretxatzen zituen eta errealitatea bere interesentzat komenigarriena zen moduan azaltzen zuen<sup>17</sup>.

Ildo beretik, *Gerra zibilaren iruzkinak* liburua Ponpeioren, Senatu errepublikarraren hautagaiaren, erorikoa justifikatzeko idatzi zuen, eta bere aldean Zesar garailea jartzen zuen, Galia konkistatu zuen armadaren babesa zeukana, K.a. 49. urtean Italian sartu eta Ponpeioren eta bere armadaren ihesa eragin zuena. Ponpeio Grezian (Farsalian) garaitu eta azkenik Egipton hil zuten. Erromatik itzulitakoan, Senatuak diktadore titulua berretsi zion, eta plebearen tribunoaren titulua ere lortu zuen. Horrek Erromako jaun bihurtu zuen, baina Senatuaren susmo txarrak eragin zituen eta bere hilketa K.a. 45. urtean martxoko idusetan.

Beren ondorengo Augustoren lana enperadoreak berak aldarrikatzen zuen. Erromako hiria hobeki eraikitzeko jarduera garrantzitsua nabarmendu egiten da zenbait oroitzapenezko monumentutan, gerra zibilak amaitu eta gero etorri zen bakea ospatzeko eraikiak, ekialdeko Mediterraneoan (Siria eta Egipton) erromatar aginpideari eutsi baitzioten, Galiaren administrazio berrantolaketa egin eta Hispania osorik konkistatu. Horren guztiaren oroitzapena egiteko, Marteren Zelaian Ara Pacis izenekoa eraiki zezaten agindu zuen. Augustok, bere aldetik, bazeukan agindua emana eremu horretan bertan familia mausoleoa eraikitzeko, Aktiumgo guduaren ondoren

---

17. Rambaud, M.: *L'Art de la déformation historique dans les Commentaires de César*. Paris: Belles Lettres, 1953.

eta Alexandriatik itzuli ondoren eraikia. Segur aski Augustok han ezagutuko zuen Alexandro Handiaren mausoleoa. Eguzki erlojuarekin batera, Augustoren aldiko oroitzapenezko monumentu garrantzitsuenak dira.

Baina, horretaz gainera, lehen erromatar enperadoreak bere eskuaz idatzi zuen, hil baino lehen, bere testamentua, bere hiletari buruzko xedapenekin. Halaber, *Index rerum gestarum* bat idatzi zuen, Erromaren alde lortutakoari buruz, eta, horretaz gainera, *Breviarium* bat, Inperioarean balantze bat jasotzen duena administrazio, demografia eta kontabilitateari buruzko informazioarekin. Senatuaren aginduz, Mausoleoaren sarreran jarri zituzten brontzezko bi zutabetan, aitoren gisa eta propaganda egiteko asmo garbiarekin, enperadorearen *Res gestae* deitzen direnak. Zenbait kopia egin ziren, eta hobekien gordetakoak Ancyra antzinako hirikoa da (Ankara), *Res gestae divi Augusti* izenez ezagutzen dena, zeinak 4 parte baititu: lehena, bere ibilbide politiko, kargu eta ohoreei buruzkoa; bigarrena, herritarrei eta bereziki bere armadako beteranoei emandako diru, elikagai eta lurrei buruzkoa; hirugarrena, bere ekintza militar gogoangarriei eta lorpen diplomatikoei buruzkoa; laugarrena, Senatuak, armadak eta herriak emandako ohoreei buruzkoa. K.o. 13. urtera aldera idatzi ziren, bera hil baino urte eta erdi lehenago.

Propaganda historia horrek jarraipena dauka errege eta enperadoreen biografia askotan, karolingiar alditik hasi, eta Behe Erdi Arora arte. Errenazimentuan mitologia erabiltzen hasiko dira ere bai, bereziki hirien historiari dagokionez. Aro Modernoan jatorria aurkitzeak hartuko du garrantzia. Nafarroari dagokionez, agerikoa da helburu hori Moret erresumako kronikagilearen lanetan. XVII. mendean erresumaren antzinako denborei buruz idatzi zuen, eta errege eta eliz artxiboetako dokumentazioan egin zuen bilaketa baliatu zuen nafar lurraldearen eta bere biztanleen berezitasuna frogatzeko.

XIX. mendean bihurtuko da Historia, Ranke alemaniarraren eskutik, unibertsitateetan aztertzen den diziplina zientifiko. Historia giza zientzien parte bihurtuko da. Fisika, natura eta matematika zientziek ez bezala, gizartea eta hura osatzen duen gizakia aztertzea du xede Historiak. Giza zientzien berezitasuna da giza portaera (gizabanakoarena eta taldearena) azaltzen saiatzen direla, arreta jarritz testuinguru mekaniko edo lege unibertsal eta beharrezkoetatik eratortzen ez diren arrazoi eta zergatikoetan, prozesu jakin batzuen ondorio diren horietan, zeinetan edozein determinismotik kanpo baitaude nahita egiten direnak, asmoak edo gizakien erabakien eragile diren xedeak.

Historialariei eman izan zaie iragana epaitzeko eginkizuna, munduari irakasteko. Eta subjektu historiko askorentzat (bereziki boterea erabiltzearekin lotutakoentzat) kezka da Historiak bere pertsonen buruz emango duen ikuspegia (Historiaren

epaia, bere jarduera salbatu edo zigortuko duen epaiketa unibertsal baten imitazio-tzat hartua). Egun, eta ez soilik klase politikoan, badago komunikabideek eta sare sozialek herritar askori buruz ematen duen irudia garbitzeko joera. Are justiziak zigortutako batzuen artean ere badago beren bizitzen historia zehazteko asmo aitortua (hori bai beren delituen lerruna eta izaera jaitsiz), enkarguz egindako oroitzapen liburuak argitaratuz, zeren eta idaztea ez baita inprobisa daitekeen zerbait, ez eta erraz egiten den zerbait ere. Bai arriskutsuak oroitzapen liburuak, biografiak faltsutzen baitituzte!

Historiaren idazketarako, jada hemeretzigarren mendeko positibistek metodologia bat ezarri zuten, iraganean egiaz gertatu zena erakustea beste asmorik ez duena. Prozedura heuristikoen bidez aztertutako Historiaren iturriek historialariari erraztu behar zioten iraganaren berreraikuntza kritikoa. Beraz, informazio iturriak bilatzeko eta identifikatzeko lan handia egin behar dute historialariek, eta aztarnen eta horien interpretazioaren fidagarritasuna aitortzeko beharrezkoak diren teknikak aplikatu behar dituzte<sup>18</sup>. Egun hain laidoztatua den Historia positibista oso balioetsia zen zegokion garaian, eta historialaria gizakien bilakabidea ustez arautzen zuten lege «objektiboen» behaketa arrazoituaz arduratzeko gai zen zientzialaritzat hartua zen. Aurrerabidearen ideiak sendoa izaten jarraitzen bazuen ere, historialariak ahalegindu ziren iragan urrun eta aurremodernoaren eta modernitatea iragartzen zuenaren arteko muga zehazten. Baina XX. mendean egoera aldatu egin zen, aurreikusi gabeko ondorioak izan zituzten gertaerek arrasto sakon eta mingarriak utzi baitzituzten herrien oroimen kolektiboan, eta modernitatearen krisiaren ideiak aurrera egin zuen.

Historialaria oso balioetsia zen optimismo modernoaren aroan, berak aztertu baitzituen nazio komunitateen eta aro garaikideko gizarte aldaketen protagonista izan ziren talde sozial gailenduen jardueraren oinarri ziren historiaren egiturak, baina XX. mendeko gertakariengatik uste ona galdu zuen<sup>19</sup>. Ez da, ordea, historialariaren ardura etorkizuna aurreikustea, gertakariak ez baititu ezein lege objektibok arautzen, baizik eta aurreikusi ezin daitekeen bilakaera duten gertakizunen mende daude. Presentismo historikoak ikuspegia galaraz diezaguke, zeren, ikuspegi historikotik (Historia epe luzean), bistan da mendeetan zehar hazkunde, hedapen eta gainbehera zikloak etorri direla bata bestearen ondotik (gerrek, hondamendi natural eta sanitarioek eragindakoak izan direla ere esan behar da). Gaur egun aldatu dena ondorioen neurria da, globalak izatera iristeko modukoak baitira.

---

18. Moradiellos, E.: *Las caras de Clío...*, 53. or.

19. Sánchez León, P. eta Izquierdo Martín, J. (arg.): *El fin del historiador. Pensar históricamente en el s. XXI*. Madril: Siglo XXI, 2008.

Ezin da Historia bereizi bere testuingurutik, ezta denborazko testuingurutik ere. Iragan gutxi-gehiago urruna ez ezagutzea ere ez da gomendagarria, zeren kultura ondare historikoaren parte da, zeinaren arrastoez harro senti baikaitezke, mirlurtekoen joanari aurre egin izanagatik bakarrik bada ere. Jada bere antzinatasunak bakarrik ematen dio giza generoaren jarraitutasun balioa planetan. Historiaren erabilgarritasunari buruz esan beharra dago herritarrari interesatzen zaion zerbait dela oroitarazteko duen interesagatik (Esperientziaren Gelako ikasleek garbi erakusten dute gutxienez gizartearen parte batek bere bizipenak ulertu nahi dituela, ez esperientzia pertsonal gisa soilik, baizik eta bizipenak ulergarriagoak egingo dizkion esparru zabalago batekin lotuta). Eta hori ez hitz egiteagatik ere erroak, erreferentzia historikoak, bilatzeko beharraz, gizakiek beren jatorri biologikoak ezagutu behar baitituzte, «nor garen eta nondik gatozen» galdera tipikoari erantzuteko.

Historia jakiteak ez beharrezkoa ematen badu ere, gertakariak hasten direnean ezin baitira geldiarazi (ezin da atzera egin) eta ez baitirudi ere iragana ikasbidea denik akatsak saihesteko, harrigarriro krisi garaietan (eta mundu mailako krisi politiko eta ekonomiko larri batean murgilduta gaude oraindik) gogoeta fasean sartzen gara. Ez da arraroa entzutea zenbait adierazpen gertatu denaren analisi bat eskatzen, neurri horretako kaltea eragin duten zergatikoak ezagutzeko, ez dakigu erantzukizuna eskatzeko asmoz egiten ote diren zaintza, kontrapisu eta kontrol gaietan beren eskumenak alde batera utzi zituztenen aurka. Hemen eginkizun garrantzitsua izango du historialari espezialistak esparru politiko, sozial eta ekonomikoetan, eta epe baten ondoren gertatukoaren ikuspegi bat emango du, eta dagokien lekuan jarriko ditu erabaki-hartzaileak, ondorioak jasan zituztenentzat hain kostu handia izan zuten erabakiak hartu zituztenak.

Beraz, luze joko du Historiak, nire ustez. Utz diezaiogun denborari gauzak dagozkien tokian jar ditzan. Hori da dena. Eskerrik asko zuen arretarengatik.